

Onditz Iturbek emaitza onak lortu ditu Tailandiako lasterketetan

15. orrialdea

Podium bi egin ditu azkoran Irati Astondoa zeanuriztarrak

Mungian jokaturako Euskal Herriko Txapelketan hirugarren egin eban zeanuriztarrak Nerea Arruti eta Nerea Sorondoren atzetik, eta Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian bigarren izan zan, Nerea Arrutik bakarrik amaitu eban lana Astondoak baino azkarrago eta. **15. orrialdea**



Kiñuk Rockupa eta ZETAKen kontzertua antolatu dau

17. orrialdea

Bildurraren kontra mobilizauko dira andrak zehemendiaren 25ean

Manifestazioa eta ekintza ugari antolatu ditue.

Zehemendiaren 25erako, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatze-ko Nazinoarteko Egunerako, hain zuzen, Arratiako Mobimentu Feministek manifestazioa antolatu dau, 20:00etan, Igorreko Kultur Etxetik urtenda.

Aurreko eta hurrengo egunetan, filmek, antzerkiek, berbaldiek, tailerrek eta beste kultur jarduera ugari indarkeria matxistea hartuko dabe gaitzat, zelan prebenidu eta zelan erantzun hausnartzeko. **8. orrialdea**



Tokikomen ibilbideari saria jaso dau BEGITUK



Tokikomek 10 urte bete ditu eta bere urteurreneko ekitaldian, alkarlana eta bazkideen ibilbideak saritu ebazan. BEGITUK 20 urte bete ditu aurten, hilabetekaria izatetik, egunero informazioa emotera pasauz. **9. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldiaren hasikerako ekitaldiak egingo dira 18an

Arratiako herri askotan hasikerako ekitaldia eta abenduaren 2an amaierakoa egongo dira. Egunotan egingo diran herri argazkiek, koreografiak, kalejirek eta abar, ohiturak aldatu eta euskarearen erabilera bultzatu gura dabe. **6. orrialdea**



ARRATIA

Luis Iruarrizaga Abesbatza eta Areatzak Bandaren kontzertuak 19 eta 20an

Zezili Deuna, musikearen zaindariaren eguna hilaren 22an da eta hori dala-ta, musika emonaldiak egongo dira. Hilaren 19an, Luis Iruarrizaga Abesbatzaren lehenengo emonaldiaren 40. urteurreneko kontzertua egongo da Igorreko Lasarte Areatan. Abesbatzagaz batera, Areatzak Banda be egongo da.

Hurrengo egunean, Areatzak Bandak, kontzertua emongo dau eleizan. Beragaz, Luis Iruarrizaga Abesbatza, Musika Eskolako ikasleak eta Nerea Zuloaga abeslaria egongo dira. **5. orrialdea**



Literatura txokoa

LA SEÑORA MARCH

Jesarrialdi baten edo, asko jota bitan, irakurri gura dozun liburu horreetakoa da *La señora March*. Dotore eta zorrotz idatzitako Virginia Feitoren lehen nobela honek hasikeratik harrapatzen dau irakurlea. *Thriller* psikologikoa da, baina baita March andrearen azterketa psikologiko bikaina be.

1960ko hamarkadan kokatzen da istorioa. March andrearen gizona idazle arrakastatsua da eta salduenen artean dagoan nobela bat atera barri dau. Jentea hasten da esaten protagonisteak March andrearen antza handia daukala eta argi dagoala bera izan dala inspirazinoa. Eta orduan dauka March andreak hondamendia ekarriko dauan epifania, besteak zelan ikusten daben ikustean. Ze,

liburuaren protagonisteak prostituta zahar, lodi eta koipetsua da, errukia baino ez dauana sortzean bere bezeroen artean. Zelan ez da ordura arte konturatu March andrea bere gizonak barre egiten deusala mundu guztiaren aurrean?

Nobelean hasieran, March andrea, bere estatusari jagokoa anfitrioi perfektua da, jai bat prestatzen dago Virginia Woolf-en beste *Mrs. Dalloway* bat balitz legez. Beti besteak zer esango dabenez arduratuta bizi da, eta inoz ez da ezereen parte sentiduten, beti kanpotik begiratzen dau dana. Benetan berarengan inspiratuta ete dago gizonak idatzi dauan liburuaren protagonisteak?

March andreak izan ezik, beste personaje guztiei ipini deutse izen

propioa Feitok: George deitzean da idazlea; Jonathan, semea; Martha, neskamea eta Johanna, George March-en atzen liburuko protagonisteak. Patricia Highsmith-en zaleek amaitu arte ezin izango dabe itxi *La señora March*.

Virginia Feitok (Madril, 1988) ingelesez idatzi dau bere lehenengo nobela hau eta arrakasta handia izan dau. 2022 urteko liburutik onenetakotzat jo dabe Library Journal-ek, The Times-ek, Oprah Dailyk, Evening Standard-ek, USA Todayk eta The Independentek. 2022an gaztelaniaz argitaratuta, Valencia Negra jaialdiak nobela onenari saria emon deutso.

Liburuan oinarritutako pelulu-filmetan dabiz eta Elizabeth Moss-ek egiten dau March andrearen papera.

Bea Azpiri Rementeria



Virginia Feito

La señora March

Lumen, 2022

328 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 14tik 20ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 21etik 27ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 28tik abenduaren 4ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean orduo

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduo.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketak:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tirada:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, esker-ronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XIII).
Kale berbakunea sustatu guran

ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN)

- Gaur itzelezko eguna egiten (dau) _____
- Kamaran saguak (dabiz) _____
- Osabeak oparia emon (deutsu) _____
- Laster (datoz) _____ Gabonak
- Laster joango (da) _____ Mikel Lemoara

ERETXIA

Baga, biga, higa...

BAGA, baina bagara?
Lirikarako sasoi onak ba ete diran galdetu eustan lehengoan ezagun batek. Bertso-larritza pil-pilean dagoala, literatur sorkuntza inozko oparoena ez ete dan, antzerkigintzan obra ederrak plazaratzen ari dirala, herrietan perretxikoak lez sortu dirala literatur tailer eta irakurle txokoak... hala esaten eustan berak eta neu be bat nator beragaz, baina... bagara?

BIGA, baina bi gara?
Bai, izan bagara. Azken urteetan arlo desbardinatuko sortzaileek lan izugarria egin dabe, oindino be izan gaitez. Pandemia bera euskal kulturearentzat orohar golpe izugarria izan arren, sortzaile askok sorkuntzarako probestu dabe garai ilun hori eta lan horren frutuak jasoten be gabiz. Bestetik, bagara euskal musika, euskal antzerkia, bertsoak edo euskal literatura zaleak garanak baina zenbat gara? Bi gara?

HIGA baina zein da gure liga?
Bi baino gehiago bagara, baina ez gura geunken beste halanda be. Belaunaldi barrien artean irakurzaletasuna jaisten dabil, kultura konsumidutako ohiturak aldatzen dabiz, ikus-entzunezkoen arloan euskerazko eskaintza ezebezaren hurrengoa da ia... mundu mailan jokutzen da egun kulturearen partidua, baina zein da gure liga?

LAGA baina euskara?
Hizkuntza gitxituen ligea da gurea, euskerearen ligea. Liga txiki eta xumea, galtzaileon ligea, garaipen bakotxa azkena izango balitz legez ospatzen dogunon ligea. Hiztun asko dituen kulturek be baditue euren norgehiagokak, esaterako Frantziak bere kulturea babesteko legeak egiten ditu, biziko da oindino frantsesa, biziko da gaztelerea... baina euskara?
BOGA baina nora?
Euskal kulturearen biziraupena estu lotuta doa euskerearen iraupenagaz. Zenbat eta euskal hiztun gehiago izan oparagoa



ARKAITZ ESTIBALLES
Bertsolaria

izango da euskal kulturearen jarduna, euskal kulturea zenbat eta erakargarriago bihurtu euskal hiztun gehiago hurreratuko dira kulturearen plazara. Halanda be, euskerearen erabilerearen azkenengo datuek kezka bete saku laga deuste. Hezkuntza sistema honek euskalduntzen ete dauz gure haur eta nerabeak? Herrietako kultur programazioetan ze garrantzi emoten jako euskereari? Arratiako udalek euren euskera plana barriztu ete dabe azken urteetan eta batez be plan horreek garatzeko baliabiderik ipinten ete dabe? Nonora goazela dinoskue,

baina nora?
SEGA baina hizkuntz aukera?
Nora? Behetik gora. Beste behin be, herri ekimenetatik suspertu beharko da euskerearen aldeko burrukea. Instituzinoakaz eskutik helduta batzuetan, baina akuilu lanak egiten beste askotan. Euskaigintzearen esparruan lan egiten daben eragile desbardiniek euren diagnosiak partekatu beharko ditue, minimo komunak bilatu, euskerearen aldeko defentsa berraktibau. Kultur sortzailea be ezin da lanketa horretatik kanpo geratu. Ze diskurso garatuko dauan hausnartu beharko dau eta batez be bere buruari galde-tu: ze hizkuntz aukera?

ZAI baina guay?
Euskeraz izango al da euskal kulturea? Nik ez daukat zalantzarik, euskal egunkari bakarra ezetuten dodan moduan, euskal kulturak euskerazkoa behar dau izan edo ez da izango euskalduna. Zeinek egiten deutso mesede gehiago euskal kultureari, ingelesez dabilan euskal kantariak edo Rozalene *Xalbadorren heriotzean* euskeraz kantauz? Ogia erostea bera hautu politiko bat zala esaten baeben, kultur sorkuntzarako hizkuntz aukerea zer esanik ez! Erderaz sortu eta euskal sortzaile izan zeinke beste askoren aburuz... baina guay?

ZOI baina erraldoi?
Euskeraz eta guay izatea lortu beharko dogu ba! Zorionez badaukagu horretarako aukerea, idazle, bertsolari, jantzari, antzerkigile, gidoigile, zinemagile bikainak daukaguz gure herrian. Ez dira bikainak euskeraz jardutearren noski. Handiak izan behar dogu gure txikian, baina erraldoi?
BELE baina euskeraz ele!
Ekitaldi erraldoiak egiteko joera dago oin, euskereak askorik arduraz ez deutsuten patrozinatzaileez betetakoak, sarrerak banketxe jakin bateko bezeroek aurretiaz erosteko aukereagaz... Ez dot erraldoi izan gura, handitzen joan gura dot nik, naturaliki eta horretarako txiki izaten be jakin behar da eta batez be txikia indartu. Birtatean euskeraz ele!
HARMA, TIRO, PUN.

NETFLIX

EUSKARAZ

www.pantailakuskaraz.eus

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Zulaibar Lanbide Eskolea

Zenbat zor deusagun zeanuriztarrok eta arratziarrok Undurragako Don Pedro Atutxari, Iñaki Rotaetxeri eta Luis Arregi "Maixu"eri. Zulaibarko lanbide ikasketako hasikerako haziak eta zutabeak eurei esker jarri ziran. Hirurak buru-belarri jardun eben Zeanurin lanbide eskolea ipinteko asmoz eta euren bultzadaz eta ekimenez lortu zan. Arratziarrok, eskerrak emotea daukagu.

Gogoan dot, ni neu mutikoa nintzala Zeanurin bertan, neu jaio nintzan etxe pare-parean, hantxe hasi zirala lanbide eskolako lehen ikasketak. Goiko solairuan teorika eta behelaldean tailerra.

Eta han etorri jakun hasikera-hasikeran, laster zeanuriztar bihurtu jakun Luis Arregi donostiarra, guretzat betidanik "Maixue", balio handiko gizona, jakituna, mekanikorik onenetan onena, azkarra, serioa, pentsalari, egile eta eragilea, ideetan

eta eginkizunetan independien-tea. Bere ibilbidean diskrezino handiz bizi izan dana.

Hirurek ekien gauzak ekina-ren ekinez lortzean dirala. Eta nahia eta ekimen horreen bi-dez, Zulaibarren eregi zan lanbide eskola barria, gaur guztiz barriztau, indartu eta egungo beharizanetara egokitu dana.

Jakina, garai bakotzak bere zailtasunak daukaz eta ziur oztopo ugari izango ebezala baina gizaki aurrelari prestuak dagozanean eta norabidea argia danean ez dago euren eginbidea geldiarazotuko daua-nik, kosta ahala kosta egin be-har da eta kito. Eta halaxe ba, haziak bere frutuak emon ditu.

Eurek jarritako hazia, hasiz hasiz joan zan ermetzen eta bertan ikasitako asko eta asko urteetan zehar ibili izan dira eta dira gaur be lanean. Zer esanik ez, Zulaibarko eskoleak Arratiari lana eta bizia emon deusta-la, eta gaur bere barrikuntzan, zoriontzea besterik ez dogu. "Nondik lan handik jan" horixe euren lema edo goiburua. Eta etorkizunari begira, ekinez, bi-dea eregiten eta frutu barriak emoten jarraitu dagiala.

ZERTZEAN



IRUNE ZULUAGA LEJARZA

Gaia jarrita: "Negua zelan datorren!"

1

Eguraldi ederrak ahaztuta baltzitu jaku zerua, etorkizunaren iragarle izango ete da keinua? Sobran be laster ikusiko da zelan datorren negua, aurtengoa latza izango dala hartzen deusat nik tajua.

2

Azaroaren hamazortzian ate-joka Euskaraldia, ariguneak eta ohiturak zabaltzeko aitzakia; nahiz batzuentzat hau beti izan benetan gauza larria, ez dabelako inoz onartuko guk ereiterik Hazia.

3

Gerra ez da bukatuko behingoz negoziatu arteino, prezioak be neuririk gabe gorantza doaz oindino, eta klima-larrialdia be bihurtu da gure laino, ganera, osasun zentroetan ilarak dagoz goraino.

4

Izkin hontatik idazten deusut ume uxok bezela, munduko nahaste hau konpontzeko eskatzen deusut horrela; aurrerantzean be ekarri daizun harro ta artez txapela, gabonkaria urri bada be, danontzat izan daitela.

Doinua: Badira hiru aste

BEGI TXINDORRA

Gure kultura dikotomietan oinarritzen da: andra/gizon, gazte/zahar, ezker/eskoi... Eta etxeko abere/animalia basatia be dikotomia horreetako bat da. Hau da, zati bi bereizten dira, eta zati horreek aurkakoak eta osagarriak dira. Holan eregi dogu gure pentsamentua. Errealidadeak, dana dala, ez dauka hain muga zehatzik, dana da *continuum* bat eta *continuum* horretan gauza gitxi dira zuriak edo baltzak: gris aukera handia dago.

Katua etxeko aberetzat daukagu; azagaria, barriz, basoko animatatzat. Igorren, herri erdian egin eben topo honeek biak aspaldi ez dalako gau baten. Eta esan lei, gau haretan, lagun izatea gura ebela biek, katua eta azagariak, euren desbardintasunak alde batera itxita.

Ez dakigu gau haretakoa desbardinaren arteko solidaridadea ete zan ala gure kulturako dikotomien gaineko axola eza, baina adiskidetasun eder baten hasikerea izan eitekean.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bidakia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zentrua: 900
R.P.S. 31/06

ARTEA, DIMA, IGORRE

UEMAk Gazteok Arnas Eguna antolatu dau hilaren 26rako

Erredakzinoa

Zemendiaren 26an, udalerrri euskaldunetako gazteek, Arnas Eguna ospatuko dabe Larrabetzun. Larrabetzura joateko autobusak egongo dira Artea, Dima eta Igorretik.

Hartu-emonak saretzeko eta sendotzeko eguna izango da Gazteok Arnas Eguna eta egun osoko egitaraua prestatu dabe. Tailerrak, ekitaldia, bertso-bazkaria, perkusino taldea eta kontzertuak egongo dira. Izena emoteko, uema.eus webgunean dagoan galdetegia bete behar da.

Egitaraua

11:00etan, ondo etorria herriko



plazan.

11:30ean, tailerrak aukeran: zirku tailerra, mural margoketa eta herrian zehar ibilbidea.

13:30ean, ekitaldia.

14:30ean, bertso-bazkaria.

17:00etan, Zo-Zongó perkushow taldea.

19:00etan, kontzertuak Hori bain: Kuluxka Klan eta Dj Nahia Novo.

ARTEA

Aldaketa energetikoa eta kultura bultzatzea helburu daukien aurrekontuak onartu dira

Erredakzinoa

EJA-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bildu eta Aldatuz Plataformearen abstentzinoak onartu ziran zemendiaren 11n Arteako 2023rako aurrekontuak. Guztira 1.287.947 euro kudeatuko ditu Udalak, aurreko urtean baino %15 gitxiago.

Aurrekontua orokorrean jeitsi arren, hainbat partidatarako diru gehiago dagoala azaldu deutso Alberto Intxaurrea Arteako alkateak BEGITURI: energia barritagarrietara aldatutako %15 igon da partidea; jai ekintzetarako %30; kultur ekintzetarako %15eko igoera izan dau. Euskerarako %100 eta gizon eta andren arteko aukera berdintasunerako %50 igon dirala diru partidak be esan dau.

Energia barritagarriak

Legegintzaldian, deskarbonizaziorako pausu garrantzitsuak emon dabez eta horretan jarraituteko asmoa daukie. "Prozesu bat hasi genduan eguzki plakak ipinten eta oin aeroterminia sartu dogu udaltxean. Ondo badoa, hurrengo pausua izango litzateke beste eraikuntza publikoetan be aeroterminia erabiltea, plaka fotovoltaiakoak batera. Auto elektrikoak kargetako lekua be ipini dogu". Komunitate energetikoa martxan ipintea izango litzateke hurrengo pausua eta horretarako dana prest itxi gura dabela dino alkateak, hurrengo legealdian, hauteskundeetan urtetan dauanak aurrera egin dagian deskarbonizazioan eta energia barritagarrien

alde. Horretarako 50.000 euroko diru partidea dago 2023ko Udal kontuetan, eskolako eraikuntzan plaka fotovoltaiakoak ipiniko dira, eskoleak bere energia erabilteko, eta argiterian falta dan %30a LED sistemara aldatuko da. Goiener azterketa bat egiten dabil, lehentasunak eta moduak argituteko.

Auzuneetan konponketak egiteko 40.000 euro dagoz. Konponketa horreetako batzuk, Ugarteko autobus geroak eta Mendietako bidea dira. Kultura arloa be sendotuko da, diru partidea handiagoa da-ta.

Ekomuseoaren proiektua ez da sartzean 2023ko aurrekontuetan, diru partidea aurreko aurrekontuetan egon zalako, baina teilatuak su hartu eban eta atzeratu egin zan proiektua. Diru horregaz eta dirulaguntzakaz ordainduko dira lanak.

Abstentzinoak

EH Bilduk eta Aldatuz Plataformek abstentzinoa emon eben errazoi bardinakaitik. Izan be, ez eben ezezkoa emon, euren proposamenak onartu ziralako eta aurrekontuetan sartu; baina baiezkua be ez eben emon, Ekomuseoaren proiektuaren kontra dagozalako formazino biak. Izan be, EH Bilduren esanetan, "herriari galdetu bako eta inponidutako proiektua da; mantentze eta martxan ipinteko lanek herriaren zorpetzea ekarri leikie; kanpoko preminei erantzun eta herriko beharizanak alde batera itxita eregiko dana" eta "nork egingo ditu kudeaketa lanak? Udalak ala kanpoko eragileek?" galdetuten dabe.

ARRATIA

Hainbat kontzertu egongo dira musikearen eguna ospatuteko

Zezili Deuna, musikearen zaindariaren eguna da hilaren 22an eta horren

atxakian edo atxakia barik, kontzertu, kalejira eta musika emonaldi ugari egongo

dira hurrengo egunotan. Holan, Arratiako Musika Eskoleak, Luis Iruarizaga

Abesbatzak eta Areatzako Bandak, besteak beste, kontzertuak eskainiko ditue.

Erredakzinoa

Horrezaz gainera, musika barrokoa entzuteko aukerea egongo da Bedian hilaren 18an, 19:00etan, liburutegian. Adhara Martinezek eta Teresa Merinok sasoi haretako obrarik ederrenak interpretauko ditue *Barrokora bidaia* izeneko kontzertu-ikuskizunean. Barbara Strozzi konpositorearen musikea joko dabe kontzertuan. Adhara Martinezek antzetzuko dau Barbara Strozzi XVII. mendeko abeslari eta konpositorearen papela eta bere lagun Annarena Teresa Merinok. Vivaldi, Monteverdi, Strozzi, Pergolesi eta Haendelen musikea joko dabe.

Luis Iruarizaga Abesbatza, Areatzako Banda eta Arratiako Musika Eskolea

Luis Iruarizaga Abesbatzak lehenengo emonaldiaren 40 urteak beteta ditu eta hori ospatuko dabe zemendiaren 19an, 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretan. Urteurrena igazko maiztzean izan zan, baina COVID-19a dala-ta hartutako neurriek emonaldia atzeratzea ekarri eben. Abesbatzagaz batera, Areatzako Bandea egongo da.

Hurrengo egunean be, hilak 20, Areatzako Bandea eta Luis Iruarizaga Abesbatza batera egongo dira, Areatzako Bandaren urteroko Zezili Deunaren kontzertuan, 19:00etan, Areatzako eleizan izango dana. Euskal

musikea izango da kontzertuaren ardatza. Nerea Zuluaga abeslariak be kantauko ditu hainbat pieza eta Arratiako Musika Eskolako ikasleak egongo dira pieza pare baten lagunduten.

Arratiako Musika Eskolakoek kalejirea eta jaialdia egingo dabe hilaren 23an Artean. 18:00etan, ha-

mar minutuko kalejiratxoia egitea da asmoa. Kultur Etxetik, udaletxeraino eta handik plazara. Plazan, 20-25 minutuko kontzertu txiki bat emon eta ostean, txokolatea hartu Kultur Etxeko sotoan. Euria egin ezker, ez litzateke kalejirarik egingo eta kontzertua eta txokolatea frontoian izango litzatekez.

KORU MUSIKA KONTZERTUAK

Luis Iruarizaga Abesbatzaren eskutik

40. URTEURRENEKO KONTZERTUA

CONCIERTO DEL 40º ANIVERSARIO

IGORREKO "LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA"

AREATZAKO BANDA

2022 AZAROAREN 19a, ZAPATUA
ARRASTIKO 19:30etan

19 DE NOVIEMBRE DE 2022, SABADO
19:30 HORAS

IGORREKO LASARTE KULTUR ARETOAN

Fair Saturday

ARRATIA, UBIDE

Gazteek enpresak sortzeako dirulaguntzak eskatu daikiez

Erredakzinoa

Arratiako udalerriren baten, 2020ko urri lehenengoaren 15etik, 2022ko urri lehenengoaren 14ra bitartean, jarduera ekonomiko barriren bat hasi daben 18 eta 35 urte bitarteko gazteek dirulaguntzak eskatu daikiez abenduaren 9ra arte gazteria.arratia@bizkaia.org posta elektronikoaren bidez. Oinarriak eta formularioak Arra-

tiako Udalen Mankomunitatearen webgunean dagoz.

Gazte ekintzaileei Arratiako bailaran jarduera ekonomiko barriak sortzean lagunduteko, guztira 15.000 euroko dirulaguntzak ditue Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Laguntza ekonomikoak deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunen arabera emongo dira, eta erispide honeei jarrai-

tuz: barritzailea izatea, kalidadeko enplegua sortzeako gai, eragin sozialduna, eta ingurumenean eta ekonomian jasagarria.

ENPRESAK SORTZEKO DIRULAGUNTZAK

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK

ZEBERIO

2023ko aurrekontuetarako ekarpenak egin daitekez hilaren 20ra arte

Erredakzinoa

Zeberioko Udalak inkesta bat bialdu dau etxeetara eta webgunean galdetegi bat ipini dau, herritarrek, botoa emon eta egin behar diran hobekuntzen gaineko ekarpenak egin dagiezan. Galdetegia erantzun eta entregau behar da zemendiaren 20a baino lehen, udaletxeko postontzian edo webgunean.

Holan, herritarrek zeintzuk iruditzen jakiezan inbersinorik premi-nazkoenak azaldu ahalko dabez. Inkestan, herrian egiteko hainbat hobekuntza posible planteetan dauz Udalak, saneamentu-sarea etxeetara lotzea, argiteria publikoa hobetzea eta auzo bideak konpondutea, esate baterako. Ha-ta guzti be, proposamenak irekiak dira, eta botoa emoten dabenek

aukerea izango dabe hobekuntza gehiago planteetako. Aurrekontuen inguruko edozein zalantza galdetu edo zoezer gehituteko alkateagaz batzea be eskatu leikie zeberioztarrek. Zeberioko EH Bilduk ostera, zemendiaren 16an, 18:30ean, herritarren eretxia jasoteko bilerea egingo dau plazan "Aurrekontu parte-hartzaileak" izenburuean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaraldia ate joka

Hilaren 18an hasiko da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatutea bilatzen dauan ariketa sozial masiboa. Arrakastatsua izan eta euskerearen erabilerea bultzatu dagian, eskualdeko herrietan hainbat jarduera prestatu ditue.

Erredakzinoa

Areatzan, zemendiaren 18an, 17:00etan, ahobizi eta belarri-prest txapak bananduko dira udaletxeko arkupetan. 18:00etan, argazki herrikoia egingo da plazan eta ostean mokadutxoa. 19:00etan, kalejirea egongo da herrian Arratiako Eingo eskolako trikitilariakaz. Zemendiaren 28an Luze edo motz ikuskizuna egongo da udaletxean, 19:00etan, eta Euskaraldiari amaiera emoteko, abenduaren 2an Euskaraldiko kantuaren jantzea egingo dabe umeek plazan 17:30ean. Ostean txokolatea egongo da. Artean, 19:00etan, Euskaraldiko leloa eskegiko dabe udaletxeko balkoian eta ostean, trikiti, pandero eta saxofoiagazko kalejirea egingo dabe herritik. Amaieran, abenduaren 2an be egingo deutsie agurra Euskaraldiari, 20:00etan, plazan. Jantza modernoko taldearen erakustaldia eta taloak egongo dira. Bedian, abenduaren 1ean, 19:00etan, herri argazkia egingo dabe eta gero, ardaoa eta gaztaia dastatuko dabez trikitilarien musikeak lagunduta. Diman, Euskaraldiaren hasierako ekitaldia 19:00etan egingo da frontoi txikian. Ostean argazki kolektiboa egingo dabe eta Eingo taldeagaz herriko tabernetatik ibiliko dira jaigiroan. Abenduaren 2an, amaiera ekitaldia egingo dabe, Bihotz eta Gurutzek girotuta.

19:30ean, tabernaz taberna ibiliko dira Sama Siku fanfarreagaz. Hurrengo egunean, Euskerearen Egunean, egingo dabe ekitaldia, testu bat irakurriz eta Gazte Barri jantza taldea eta Zamakola koruaren partaidetzeagaz. Gainera, euskerearen aldeko herritarren argazkiakaz bideo bat egingo dabe eta hormairudi bi margotuko dabez herrian. Aurretik hasi ziran motorrak berotuten Igorren, eta zemendiaren hasikeratik txapak bananduteaz gainera, Euskaraldiari ondoetorria emoteko, zemendiaren 11n izan zan Kerobia eta Niko Etxarten kontzerturako 10 sarra zozketatuko ebazan Euskera Zerbitzuak. Txapak, zemendiaren 8an, 10ean, 11n, 12an eta 13an banandu ziran leku desbardinetan. Zemendiaren 18an, Euskaraldiari hasikerea emoteko, 17:00etan, Euskaraldiko jantzearen koreografia egingo da Kultur Etxean eta 19:00etatik 21:00etara, batukadea herrian zehar. Euskerearen Egunean, 11:30etik 15:00etara, kalejirea egongo da Katiuska eta Katilu Hezkuntza eta Antzerki taldeagaz. Lemoan zemendiaren 13an, Euskaraldia Batzordeko kideek, Nekazaritza Azokan postu bat ipini eben txapak banandu eta banderolak salduteko. Hasikera ekitaldia, hilaren 18an, 19:45ean izango da. 19:00etan, Kirol asteko ekintza bat egingo da, hiru pelota modalidaderen partiduak, egongo dira eta partidu arteko

tartea aprobetxauko da hasikera ekitaldia egiteko. Testu baten irakurketeak, kultur pilula batek eta txapak ipinteko ekintzak osotuko dabe ekitaldia. Euskaraldiak irauten dauan bitartean, Euskaraldiagaz bat egin daben establezimentuetan ahobizi edo belarriprest txapa daroan bezeroak, bere rolaren arabera jokatuz, euskeraz eskatzen badau, aterki bat jasoko dau trukean. Zemendiaren 21etik 27ra, Egunean Behin Lehiaketan Lemoako taldean parte hartzean dabenen arteko lehiaketea izango da. Saria emongo jakie aste horretako lehen bederatzi sailkatuei, eta zozketa bidez beste parte hartzaile batari. Saria, Kotxepin Kultur Etxeko 2023ko harpidetzea eta Nerea Ibarzabal idazlearen Bar Gloria liburua izango da. Abenduaren 2an, amaiera ekitaldia egingo da Lemoako eskolako aterpean 16:30etik aurrera. Guraso alkarteak eta Udalak alkarlanean antolatu dabe egitaraua: 16:30ean, umeentzako jolasak; 18:00etan, Txoborro magoa; 18:45ean, Euskaraldiaren amaiera ekitaldia; 19:00etan, Ane Lindaneren bakarrizketea, eta 20:00etan, helduentzako magia poteoa Txoborro magoagaz herritik zehar. Zeanurin hasikera ekitaldia 18:00etan izango da: testuaren irakurketeak, talde argazkiak, bertso-saioak, euskal jantza erakustaldiak, euskal kantak txistulariakaz eta txorizo eta urdai janak osotuko dabe jaia.

ARTEA

Andra eta gizonen arteko bardintasun egoerearen diagnostikoa egiten dabiz



Erredakzinoa

Arteko II. Bardintasun Plana egiteko, aurreko Planaren ebaluazioa eta egoerearen diagnostikoa osotuten dabiz Daiteke aholkularitzako teknikariak. Lanketa honen bitartez, Arteko egoerearen argazki orokorra lortu eta etorkizuneko bardintasun politiken estrategia zehaztu gura da. "Horretarako urte honeetako bardintasun praktikak identifikatu eta bardintasunerako onuragarriak izango diran proposamenak eta erronkak jasoko dira" Marina Azkonizaga Daiteke aholkularitzako Bardintasun Teknikariaren esanetan. Aurreko Planaren ebaluazioa eta egoerearen diagnostikorako, zinegotziak, Udal langileak, AUMko

teknikariak eta Arratiako hainbat zerbitzutako beharginak alkarriketatu ditue. Hurrengo pausua gizarte eragileakaz lanketea osotutea da: Kafrangak Arteko talde feministeagaz, guraso alkarteagaz eta eskoleagaz, besteak beste. Eskolako ikasleakaz be "lanketa desbardinak osotutea bilatuko da" Azkonizagaren arabera. Ondoren talde eztabaiden txandea izango da eta herritarrakaz alkartuko dira, dagozan proposamen eta ideak batzeako. "Hau funtsezkoa izango da, izan be herritar eta herri eragileen eretxia ezinbestekoa da, eurak diralako Arteko egoerea ondoen ezetuten daben personak". Informazio guztia aztertu ondoren, Arteko II. Bardintasunerako Planaren lanketeagaz hasiko dira.

BEDIA

Kultura jardueretarako zentro bat izango dau Bediak Errekaondon

Erredakzinoa

Urri bigarrenean hasi ziran Errekaondo kaleko 9. zenbakiko lokala, jarduera ugariko zentro izateko behar diran lanak egiten. Bertan, yoga, pilates, umeentzako tailerrak eta udako udalekuetako jarduerak egingo dira, beste batzuen artean. Lanok, 211.630 euroko aurrekontua daukie. Lokala, eta egokitze lanak egin ostean, "edozein jarduera hartzeako" modukoa izango da, proiektuaren malgutasunari esker, udal iturrien arabera. Construcciones Elorri enpreseari esleitu jakozan lanak garagarrilean. Eraispena, igeltserotza-lanak, kanpoko eta barruko arotzeria, instalazioak (saneamentua, itur-



gintza-lanak, argiztapena, aireztapena, klimatizazioak, telekomunikazioak, audioa, eta abar) eta pinturea dira egin beharrekoak zentroa jardueretarako erabilgarria izan daiten.

ARTEA/IGORRE

Alberto Intxaurreaga Artean eta Olatz Urkiza Igorren izango dira EAJ-PNVren alkategaiak

2023ko maiatzeko udal hauteskundeetarako Artea eta Igorreko hautagaiak aurkeztu ditu EAJ-PNVk.

Erredakzioa

Arteako oingo alkatea dan Alberto Intxaurreaga Goti izango da barriro zerrendaburu datorren urteko udal hauteskundeetan. Intxaurreagak, 2019ko hauteskundeetan EAJ-PNVk alkatetza berreskuratzea lortu eban Artean eta, bere esanetan, ez da legealdi erraza izan, "COVIDaren kudeaketeak dana nahastu daualako", baina "konfiantzeagaitik ilusinoz eta esker onez beteta, Artearen alde eta bere herrikideen mesedetan lan egiten jarraituteko gogo handiagaz" dagoala adierazoz dau ohar baten.

Agintaldi honetan egindako lanen artean azpimarratu dau "aztarna ekologikoa murriztera bideratutako zeregin ugarietan ipini gura dan lana, argi publikoak barrituteagaz, eraikin publikoetan plaka fotovoltaiakoak instalatueagaz edo auto elektrikoentzako karga-puntuak martxan ipintueagaz". Hurrengo legeintzaldiari begira, iraunkortasunaren aldeko apustu horretan, Intxaurreagak herrian energia-komunidadeak sortzeako oinarriak ipintea proposatuko dauala dino. Ekomuseoaren proiektua behin betiko martxan ipintea eta Hirri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) barria onartutea dira hurrengo agintaldian aurrera atera gura dituan proiektu batzuk.

Alberto Intxaurreaga Goti Artean jaio zan 1969an. Marketineko gradu bat ikasi eban eta galdaragintzako enpresa bateko arduradun lanetan egiten dau behar. Alkate karguaren aurretik legeintzaldi bitan izan zan zinegotzi: 1987tik 1991ra eta 2015etik 2019ra, hain zuzen be.

Olatz Urkiza Igorren

Igorreko hautagaia Olatz Urkiza Atutxa izango da, EAJ-PNVrentzako alkatetza berreskuratu eta Igorre

"berbizteko" helburuagaz.

EAJ-PNVk 2007an galdu eban Igorreko alkatetza eta ordutik 2015era arte 2007-2011 eta 2011-2015 legeintzaldietan, Urkiza zinegotzi izan zan. Jeltzaleen hautagaiak Igorre "berbiztu" gura dau. Izan be, bere ustez, atzen urteotan, Igorre noraezean joan da, eta EH Bilduren "lidergorik ezak" desgobernua eta konpondu ezin dan gelditasuna ekarri ditu. "Hasikera baten saldu eben guztitik ez dabe ia ezer egin; auzoei kasurik be ez deutsee egiten; kultur eskaintza ia ezereza da, ez gazteentzat, ez adinekoentzat; gure kaleen oinarriko mantentze-lanak be ez dira ikusten", dino BEGURI bialdutako komunikau baten. "Atzen urteotan Igorren izan doguzan hobekuntza gehienak beste erakunde batzuetatik heldu jakuz, Mankomunidadetik edo Aldunditik, esaterako".

Ha-ta guzti be, begirada positiboari eutsi deusala dino eta oposizioan egindako lana eta euren lantaldea balioan ipini gura izan dau. "Beste aldean egonda, ezinezkoa izan da proiektu handiak aurkezte, baina lan handia eta oso ona egiten dauan udal talde bat daukagu; gatazkarik sortu arazoten ez dauana eta proposamenak egiten dituana".

Igorre berbizteko, industrialdearen hobekuntza bultzatu, adin guztientzako agenda kultural bat proposatu eta garraio publikoaren errokea ez dauala ahaztuko azaldu dau.

Olatz Urkiza Atutxa Igorren jaio zan 1977an, eta Garbe auzoan bizi izan zan umetan. Igorreko institutuan ikasi eban eta 18 urtegaz, Erresuma Batura joan zan ingelesa eta Informatika ikasketak egitera. Oin aholkularitza enpresa baten egiten dau behar eta Mikele auzoan bizi da.



ZEANURI

Herri kirol desafioak ez dira faltauko Asterriako jaietan

Zemendiaren 30a, San Andres eguna, eguaztenean da aurten. Egun horretan, ermitan mezea egongo da eta Asterriako jaiei amaieraa emongo deutsee.

Aurreko astegienean izango dira jai egitarauko ekintza gehienak.

Erredakzioa

Zemendiaren 25ean, barikuan, 18:00etan, emongo deutsee hasikerea Asterrikoek jaiei, bolanderakaz. Gero, 19:00etan, umeek eta nagusiek, burdinazko ugaraxoaren ahoan txapak sartzeako euren trebetasuna erakusteko aukerea izango dabe Igel Txapelketan. Bertan parte hartzeako izena emon behar da 636 378 870 telefonoan, hilaren 22a baino lehen. Gauean, 21:30ean, auzo afaria egongo da eta ostean mahai-jokoak eta kantuak.

Hurrengo egunean, zapatuan, Ogaragoitiko iturriaren 70. urteurrena ospatuko dabe auzokoek, txistularien soinuakaz eta lora eta bertso eskaintza bategaz, 17:00etan.

Ondoren, herri kirolek hartuko dabe protagonismoa. 18:30ean, Luis Polanco azkoran eta Mikel Etxebarria ardi moztan neurtuko dira jai honeetako klasiko bihurtu dan biko desafioan, eta 19:00etan, Harriti giza probetako andra taldeak hordagoa botako deutse Zeanuriko mutilei. Gaueko jantzaldiari ekin aurretik, 20:30ean, odoloste jaganagaz indarrak barritauko dabez bertarututakoek eta 21:00etan, Jainaga eta Narbaizak ipiniko dabe jantza giroa. Ostean musikea egongo da egunak argitu arte.

Zapatu arrastian, jaietan moztortuta parte hartzera animau gura dabe jentea antolatzaileek.

San Andres egunean emongo jakie amaieraa Asterriako jaiei.

Eguazten horretan, 19:00etan mezea egongo da ermitan eta ostean barauskarria. Iluntzeko 20:00etan, bolanderakaz, agur esango deutsee jaiei datorren urtera arte.



Autokontsumo Fotovoltaikoa

Dirulaguntza handiak
dagoz, aprobetxatu!

**AURREKONTUA
ESKATU**

**Eguzki panelak jarri eta aurreztu
%50 zure faktura elektrikoan**

**Arratian jadanik
proiektu asko eginda!**

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA
Memoria teknikoa, osagaien
instalazinoa eta legeztapena

944 567 368
www.ekoleds.com
Bedia | Bizkaia
info@ekoleds.com

ekoLEDs
INST. ELECTRICAS
600 565 079

ZEMENDIAREN 25A

"Antolakuntza feministaz beldurra irauli" lemea izango dau zemendiaren 25eko manifestazinoak

Zemendiaren 25a Andren Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazinoarteko Eguna da eta Arratiako talde feministek, andra taldeek eta erakundeek kaleak hartuko ditue indarkeria bako eta bildurrez libre diran bizitzak aldarrikatzeko, Igorren, 20:00etan, izango dan Arratia mailako manifestazinoan.

**Erredakzinoa**

Gainera, urtero lez, indarkeria matxistearen forma ugariak erakutsi, horren gainean hausnartu eta horreei aurre egiteko feminismoak eskaintzen dituan tresnak erakusteko hainbat jarduera antolatu ditue aurreko eta osteko egunetan.

"Antolakuntza feministaz beldurra irauli" lemeagaz, indarkeriari aurre egiteko andre bat egitearen garrantzia azpimarratu gura dabe feministek. Hori dala-ta, nanifestazinoaren osteko ekitaldian, Txileko Las Tesis taldeak ezaguna egin eban *Borxatzailea nor da? Zu! performancea* egingo dabe. Hamabostaldian zehar, umoreak eta kultureak be hartuko ditue espazio publikoak, indarkeria matxista bako gizarte bat aldarrikatzeko.

Kultur jarduerak

Aldarrikapena ez da bakarrik mobilizazinoak eta horretarako beren-beregi eratutako

ekintzakaz egingo; izan be, ohiko agenda kulturalako ekintza batzuk, indarkeria matxistearen gaiari lotuko jakie. Holan, Igorreko Lasarte Aretoan, hilaren 13 eta 20ko zine saioetan, *Yalda, la noche del perdón* Irango andren egoerearen gainekoa eta *El viaje de Nisha*, Norvegiar bizi dan jatorri pakistaniarreko neska gazte bateri buruzko pelikulak ikusi ahal izango dira. Hilaren 16an, Bedian, 17:30ean, Bardintasun Planaren aurkezpena egingo dabe liburutegian.

Ainhua Aierbe eta Tessa Andonigiren *Me too* antzezlanak ikusteko aukerea egongo da Diman, hilaren 20an, 19:00etan, eskolako kamarinan. Catherine Deneuve eta Jane Fondaren paperetan, Aierbek eta Andonegik feminismoaren hainbat kontzepturen gainean egingo dabe hausnarkeeta eta argibideak bilatuko ditue.

Beste antzezlan bat egongo da hilaren 22an, 19:00etan, Arteako

Kultur Etxean. Saioa Royo eta Ion Martinezen *Birritan bortxatua* da antzezlanak. Fikzinozko antzezlan hau, errealdadean gertatuko hainbat bortxaketatan oinarritzen da, eta interneten danon eskura eta ikusgai dagozan epaiketetako testigantzetatik jaso dau informazinoa. Lanak, bortxaketa bat sufridu dauan andra batek erasoari eta horren ondorioei zelán egiten deuten aurre eta epaiketean zelán bizi dauan kontetan dau.

Hurrengo egunean, Zeanurin, zemendiaren 23an, 18:00etan, *Gure hots* dokumentala ikusi eta Arrate Fernandez zuzendariagaz berba egiteko aukerea egongo da Arkotxan. Dokumentala, atzen 40 urteotan euskal andre lan munduan izan daben egoerearen erradiografia historikoa da, gaur egun zelango ondorioak eta eraginak sortu arazo dituan ikertzen dauana. Bertan, 14 andrak hartzean dabe parte; Itxaro Borda, Maddi Zubeldia, Ane Ablanado, Josebe Iturrioz, Alaia Martín, Isabel Elizegi eta Irantzu Varela tartean.

Andren Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Egunaren bezperan, hilak 24, 19:00etan, Lemoako Karabie Gaztetxean, Lorena Cabnal aktibista maiak *Feminismo komunitario* berbaldia emongo dau. Cabnalek, ez dau bere burua feminista dekolonialtzat definiduten eta bai, feminista komunitariotzat, bere esanetan, izentatze modu honek dakarren interpretazinoa Gaztelaren kolonizazinoa baino harago doalako.

Zemendiaren 25ean, Bedian, Arriaga Antzokira txangoa prestatu dabe. Bilbon, txokolatea eta txurroak jan ostean, 19:30ean, David Caiñak idatzitako *Todas las hijas* antzezlanak ikusiko dabe. Gemma Martinezen proiektu baten oinarrituta, antzezlanak bost andra aktoreren historia da. *Todas las hijas* bildurrezko lan bat da: Andra bat kaletik dabil gauez, eta pausu batzuk entzun ditu atzetik; ama posesibo batek eromenera eroango dau alabea; umetan sufridutako abusu baten oroitzapena eta indarkeriak markautako hartu-emon baten amesgaiztoa. Baina bost andra horreek begiradeagaz mundua mobidutako poderea daukie.

Diman be, antolatu ditue ekintzak egun horretarako baina ekintzok Igorreko manifestazinoan egoteko aukerea emoten dabe. 18:00etan, bertaratzen diranek barre batzuk egingo ditue Abaroan Bea Egizabalen *Magma mia* bakarriketeagaz. Ostean, 19:15ean konzentrazinoa egingo dabe errotondan eta gero Igorre-joango dira, Igorreko jardueretan parte hartzeako.

Lemoan antzezlan bi egongo dira Kotxepin Kultur Etxean hurrengo egun bietan: umeentzat bata eta nagusientzat bestea. Zapatuan, hilak 26, *Piztu! EmakumeON Energia* umeentzako antzezlanak egongo da ikusgai. Eidabe Ekimen Kulturalak konpainiaren antzezlanak andra zientzialariak aldarrikatu eta Marie Curie omentzen dau. Marie Cu-

rie gidari dala, andre zientzian daukien pisu erreala erakusten dau antzezlanak. Ikuskizunak hainbat abesti be baditu, partidetza arratiarragaz gainera. Izan be, *Piztu* abestia Bihotz Gorospe igorreetarrak kantetan dau, Mikel Inunen musikeagaz. Hurrengo egunean, Lore Moreak konpainiaren *Trapu zikinak* antzezlanak egongo da ikusgai. Gerraostean girotuta, erropak garbituten diharduen andre berba egingo dabe pobreziaz, adiskidetasunaz, maitasunaz, bidebakokeriaz eta andren bizitzetan dagozan beste gai askoren gainean.

Hilaren 28an, 19:00etan, barriz, Areatzako udaletxean, Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai, *Luze edo motz* umorezko ikuskizuna eskainiko dabe. Hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua izango ditue hizpide, besteak beste, gure gizartea zertan geratzen dan luze eta zertan motz galdetzeko.

Abenduan

Andrazkoentzat indarkeria eta bildurrik bako bizitzak aldarrikatzeko zemendiaren 25eko aurtengo egitaraua, abenduaren 2ra arte luzatuko da. Abenduaren 1ean, 18:00etan, Bediako liburutegian, *Nire espazioa eman* antzerki familiarra ikusteko aukerea egongo da eta hurrengo egunean, Arantzazuko Kultur Gunean Saioa Hernandez sexologoa egongo da, 19:00etan, *Dialogos para el amor y el desamor* berbaldia egiteko.

"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaraldian bost argune sortuko ditugu".
Nerea Ortiz

HITZEZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!
euskaraldia.eus

2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra

BEGITU

Bazkideen ibilbidea saritu dau Tokikomek bere 10. urteurrenean

BEGITUK 20 urte bete dituan urte honetan, Tokikomek 10 urte bete ditu. Bere urteurreneko ekitaldian, alkarlanari eta bazkideen ibilbideari emon gura izan deutso Tokikomek saria. BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartea igaz sartu zan Tokikomen. Tokikom 28 bazkidek osotuten dabe, guztira 74 hedabide kudeatzen dabezanak. Bere historia jasoten dauan *10 urte, hamaika ahots* ikus-entzunezko erreportajea be argitaratu dau eta *begitu.eus* webgunean ikusi daiteke.



Erredakzioa

Sari banaketea Oñatin izan zan zemendiaren 11n. Joxe Rojas Tokikomeko IKT eta Komunikazio zuzendariaren esanetan, tokiko komunikabideen "ahalegin eta lorpenei benetan daukien meritua aitortzeko".

BEGITUREN ibilbideari saria

Hogei urteko ahaleginaren ondorioa da gaurko BEGITU; urteotan hazi egin da Zertu Kultur Elkarteen proiektua, eta gaurko sasoiara egokitu da. Sortu zanean, militantziatik asko eukan hilabetekaria zan, eta gaur, Arratia Ubide eta Zeberioko eguneroko informazioa emotera pasau da BEGITU digitaalera, hedabide handien pare,

eta paperezko hamabostekaria mantenduz.

Alde profesionalari jagokonean, Iñigo Iruarizaga dago BEGITUREN sorreratik eta kudeaketa eta zuzendaritza lanak egiten ditu; hamasei urte daroaz Bea Azpirik edukiak sortzean eta, Iruarizagagaz batera, editore lanetan, eta igazko udan, Asier Abrisketa lotu zan ekipora, BEGITU digitala aurrera aterateko. Gainera, dozenaka kolaboratzailek idazten dabe paperekoan, pluraltasuna emoteaz gainera, erakargarriago egiten. "Arratiarren babes barik -hainbeste modutan, ailegatan jakuna-, ezinezkoa litzateke honaino heldu izana". Euren ahalegin eta lorpenek egin dabela posible BEGITU eta daukien meritua aitortzen deutse BEGITUKO lantaldeak.



ARRATIAKO GAZTEEK
**ENPRESAK
SORTZEKO**
DIRULAGUNTZAK

ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEAK
ETA
BIZKAIKO FORU
ALDUNDIAK

NORI ZUZENDUTA DAGO?
18 eta 35 urte bitarteko gazteak.
Entidade eskatzaileak Arratiako udalerriaren baten alta emonda egon beharko dau jardura ekonomikoaren ganeke zergan.

BALDINTZAK
Onuraduntzat hartuko dira, delaldi honetako C.I. atalean ezarritako betekizunak beteteaz ganera, jardura ekonomiko barriren bat hasi badabe 2020ko irailaren 15etik 2022ko irailaren 14ra bitartean (biak barnean). Jardurearen hasiera eguntzat JEZEN lehen aldiz alta emon dauen eguna hartuko da.

ZENBATEKOA, GUZTIRA
15.000,00 €

**ESKAERAK
AURKEZTEKO EPEA**
2022ko abenduaren 9a.

INFORMAZINO GEHIAGO ETA ESKAERAK AURKEZTEKO LEXUA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

Elxakaldo, 49
48140 IGORRE (Bizkaia)
gazteria.arratia@bizkaia.org
Tel. 94 631 17 17

Arratia "Bakea Giza"  **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Arantzazuko herritarrak euskaraldiarekin





Zer

duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU












STIHL

ESKaintzak 2022ko UDAZKENA

UDAZKENA STIHL-EGAZ HASTEN DA

GAMA OSATUENA ETA ZERBITZURIK ONENA

MOTOZERRAK 189 €-TIK

HAIZE-MAKINAK 109 €-TIK

GARAJE FELIPE
www.garajefelipe.stihl-tienda.es

Garbe, 2 - Igorre
 946 736 339
 garajefelipe@euskalnet.net
 Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
 946 309 039
 garajefelipe2@telefonica.net

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

**"ARNASETIK" BIDEOSORMEN
LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK
SORMENA SUSTATU DU
EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO
GAZTEEN ARTEAN.**

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneetara bisita egin die "Amasetik" bideosormen lehiaketak. Amasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen lehen edizio hau arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteetara zuzendu zaie, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleei ere. Irailaren abiatutako "Amasetik" sormen lehiaketak urriaren 28an izan zuen amaiera gara, Amasa-Villabonako Gurea Antzokian. Lehiaketaren lehen edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategoriatan izan ditu lehiaketak, eta kategoriatan bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenei lotuak.



**10-16 urte bitarteko
gazteetara zuzendu zaie.**

**99 lan jaso ditu epaimahaiak
eta haien kalitatea
azpimarratzekoa izan da.**

**Amasa Gara ekimenak
arnaguneetako gazteei
esperientzia berriak eskaintzen
jarraitzeko asmoa du.**

Amasa Gara ekimenak euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduzko helburuarekin jaso zen, UEMAk, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Amasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gazteetara izan ditu jomugan, haien hizkuntza-ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtzioak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Etorkizunera begira

Gazteetara edukien sorkuntzarako duten grinaren erakusle izan da "Amasetik" bideosormen lehiaketaren lehen edizioa. Hori dela eta, Amasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei gogoeta piztu eta hizkuntza-ohituretan eragiten jarraitzeko asmoa du.

Info gehiago: www.arnasagara.eus

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

ARTEAN



ANIMAU
ZAITEZ!

Azaroak 18, barikua

19:00etan, udaletxean:

UDALETXEKO BALKOIAN EUSKARALDIKO LELOA ESKEGI.
GERO TRIKITI...SAX...KALEJIRA HERRITIK!

Abenduak 2, barikua

20:00etan, plazan:

DANTZA MODERNO TALDEAREN ERAKUSTALDIA.
ONDOREN TALOAK!!

begitu
eus

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



LEMOA
UDALA

Berbaz ekiteko garaia dalako, Lemoako Udala Euskaldiagaz



EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Areatzako Udalak bat egiten dau Euskaraldiagaz

EUSKARALDIA

Areatzako Udala Ayuntamiento de Areatza




EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ


Ubideko Udala




EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Ubideko Udalak bat egiten dau Euskaraldiagaz

EUSKARALDIA

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ

Zeanuriko Udala



**ZEANi
ZURI**



EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Zeanuriko Udalak bat egiten dau Euskaraldiagaz

EUSKARALDIA



**ZEANi
ZURI**

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



Andren aurkako indarkeria ezabatzeko eguna



Dimako Udala



**Indarkeria
matxistarik ez**



**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ**



AZKOREA

Xabier Gartzia "Utxu" Bigarren Mailako Bizkaiko Aizkora Txapelketan hirugarren izan da

Erredakzioa

Zemendiaren 6an jokatu zan Lekeitioko plazan Bigarren Mailako Bizkaiko Aizkora Txapelketea eta Xabier Gartzia "Utxu" azkolari dimoztarra lehiatu zan bertan; Aritz Irazabal, Mikel Agirre, Marco Nevado, Daniel Lopez eta Aritz Oregiren kontra. "Utxu" probea amaituten hirugarrena izan zan, hamazortzi minutu eta hogeta bat segundotan. Podiuma Iraza-

bal eta Agirregaz partekatu eban. Probea 54 hatzkadako enbor bi, 60ko bat eta 72ko beste bat zatituta izan zan eta arinenak, Irazabalek, hamalau minutu eta zortzi segundotan amaitu eban. Ostetik, Agirrek hamazortzi minutu eta bederatzi segundo behar izan ebazan; "Utxuk" baino hamabi segundo gitxiago baino ez. Dimoztarrak lehia estu-estua izan eban bigarren eta laugarrenagaz. Izan be, Nevadori segundo bakarreko aldea atera eutsan.



FUTBOLA

Lemoako Harrobi hirugarren postuan dago

Jokatutako atzen partidua bardindu ostean Lemoako taldeak lidertzea galdu eban.

Erredakzioa

Lemoako Harrobi taldeak hilaren 12an jokatu eban Solokoetxe A taldearen kontra etxetik kanpo eta bina bardindu eban. Bederatzi jardunaldiren ostean lidertzea galdu dau eta hirugarren postuan dago oin Lemoako taldea 21 puntugaz. Datorren partidua Arlonagusian jokatuko dau, hilaren 19an 16:00etan, Ermua A taldearen kontra.



Gizonezkoen Gernika B eta Arratia Aren arteko partidua.

Arratia

Gizonezkoen Arratia A taldeak domeka arrastian, hilak 13, jokatu eban Gernika B taldearen kontra eta 0-2 irabazi eban. Bederatzi jardunaldiren ostean Arratia A bosgarren postuan dago sailkapenean 16 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau, hilaren 19an 17:45ean, Gatika taldearen kontra.

Gizonezkoen Arratia B taldeak ostera zapatuan, hilak 12, jokatu eban Gernika Sporting A taldearen

kontra etxetik kanpo eta eta 2-1 galdu eban. Bederatzi jardunaldiren ostean Arratia B atzenurren postuan dago 5 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau, hilaren 19an 20:00etan, Solokoetxe A taldearen kontra.

Andrazkoen Arratia A taldeak domeka goizean, hilak 13, jokatu eban Mulier taldearen kontra Tajonarren eta 1-0 galdu eban. Bederatzi jardunaldiren ostean Arratia A hamaikagarren postuan dago 10

puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau, hilaren 19an 15:30ean, atzen postuan dagoan Aurrera Vitoria taldearen kontra.

Andrazkoen Arratia B taldeak zapatu arrastian, hilak 12, jokatu eban Elorrio taldearen kontra eta 1-3 irabazi eban. Zazpi jardunaldiren ostean Arratia B bosgarren postuan dago 13 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau, hilaren 20an 13:30ean, Baskuriko Kimuak B taldearen kontra.

TXIN-TXIMINI

- Tximinien garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknikoa
- Instalazioen erabarriztea eta mantenimentua

Telefona 657 77 94 58
info@txin-tximini.com
TXIN-TXIMINI.COM • Bizkaia

ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA
(2021, 2022 eta 2023an jaiotakoentzat)

Bertaratzeko eman izena
Azken eguna azaroaren 17a

EGUNA: 2022/11/19
ORDUA: 11:00
LEKUA: Ikastolan

zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus
946 732 950

ikastolen ikastola

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

**Lurrak, hizkuntzak, kulturak
batu eta egin egiten gaitu!**

ARGUNIA
RELATIBIST
ANOBIZI
EUSKARALDIA
DIMA

U2T UBITE
ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92
e-mail: ubitemat@ubitesl.com
Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A
48140 IGORRE (Bizkaia)

**ERA GUZTIETAKO
MATERIALAK
ERAIKUNTZARAKO**

KARE BIZIA SALGAIA

CAL VIVA GRANILLO
MATERIALES DE CONSTRUCCION

ESTEHEHENETIK BARIKURAZ
07:45-12:45
14:00-18:30
ZAPETUETAN
08:30-12:30

MENDIA

Tailandiako Mendi eta Trail Running Mundialean izan da Onditz Iturbe

"Denporaldiko zein momentutan harrapau deustan eta egon dan maila ikusita, pozarren nago lortutakoagaz. Esperientzia itzela izan da zentzu guztietan".

Erredakzinoa

Zemendiaren lehen astegoienean jokatu zan Chiang Mainen (Tailandia) Mendi eta Trail Running Mundiala eta espainiar selekzinoagaz lehiatu zan bertan Onditz Iturbe korrikalari igorreztarra. Lasterketa bi korridu ebazan, Uphill eta Classic Up and Down, eta dominarik eskuratu barik be, estadu mailako marka onenak lortu ebazan. Holan, egindako lanagaz pozik agertu da Iturbe, "denporaldiari amaieraa emoteko esperientzia itzela" izan dala adierazota.

Lehen lasterketea hilaren 4an jokatu zan, Uphill lasterketea,

zortzi kilometro pasatxo eta mila metrotik gorako desnibeleko ibilbidean. Podiumetik gertu geratu zan Iturbe, bosgarren postuan hain zuzen be, 57 minutu eta 56 segundoko denporeagaz. Lehenaa Allie McLaughlin estatubatuarra izan zan, Iturbe baino minutu bi eta 40 segundo arinago helduta.

Classic Up and Down lasterketea osteraa, domekan korridu zan eta Iturbe bederatzigarren ailegau zan helmugara, 50 minutu eta 57 segundogaz. Hamaika kilometro eta 400 metrotik gorako desnibeldun lasterketea Recca Cheptegei ugandarrak irabazi eban, 46 minutu eta 25 segundoko denporeagaz.



KIROL ASTEA

Kirol ugari egiteko aukerea egongo da Lemoako Kirol Astea

Erredakzinoa

Zemendiaren 14tik 20ra izango da eta Lemoatx Trail lasterketeak emongo deutso amaieraa. Astea kirolaren inguruko hainbat jarduera, kirol erakustaldi, txapelketa, saio, tailer, berbaldi eta film emonaldi bat antolatue Udalak eta kirol alkarteek.

Astelehenean, bizimodu ez sedentarioa bultzatzeko jarduera bi eta intensidade handiko beste kirol jarduera bi egon ziran. Helduentzako Oingabiz programako saioko ibilaldi gidatu baten txandaa izan zan, eta umeak eskolatik ludotekara oinez joateko ekimena ezetuteko aukerea egon zan. Gainera, eguaztenean be egongo diran intensidade handiko saio bi egon ziran: biak 16 urtetik gorakoentzat eta kiroldegian: 10:00etatik 10:45era, Hit, intensidade han-

diko entrenamentua eta 11:00etatik 11:50era Spinning saioa. Honeetan parte hartzeako izena emon behar da kiroldegia@lemaa.net helbidean edo 94 631 42 97 telefonoan.

Eguaztenean, hilak 16, goizeko saio horreezaz gainera, padel txapelketea eta osasunaren inguruko tailerra egongo dira. Padel txapelketea 17:00etatik aurrera izango da kiroldegian eta umeek zein nagusiek hartu ahal izango dabe parte. Kategoria bi egongo dira, bata 10 eta 16 urte bitartekoentzat eta bestea 16 urtetik gorakoentzat. Parte hartzeako izena emon behar da kiroldegian. Osasuna: gorputza eta burua izeneko tailerra be egongo da Kotxepin Kultur Etxean, helduentzat, 17:30ean.

Hurrengo egunean, hilak 17, 16:00etan, 9 eta 11 urte bitarteko

AZKOREA

Zidarra eta brontzea lortu ditu Irati Astondoa azkolariak hileon

Mungian jokaturako Euskal Herriko Aizkolari Txapelketan hirugarren eta Bilbon jokaturako Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian bigarren izan da azkolari zeanuriztarra.

Erredakzinoa

Txapelketa bi amaitu ditu Irati Astondoa zemendian eta bietan lortu dau podiumean egotea, bigarren eta hirugarren postuan. Bai federazinoak bai Ezpala alkarteak antolatutako txapelketan, Ne-

rea Arruti egon da Astondoaren aurretik. Zeanuriztarrak onartu dauanez, gatxa da Arrutiren kontra irabaztea: "Gure aldean indar handia eta fisiko itzela dauka".

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketea zemendiaren 6an jokatu zan Mungian. Kanaerdiko bat eta

36 zein 45 hatzkadako enbor bina zatitu behar izan ebezan eta Astondoak 21 minutu eta zazpi segundotan amaitu eban probea. Aurretik, Nerea Arruti (16:29) eta Nerea Sorondo (18:10) izan ebazan sailkapenean. Atzetik osteraa, Laiene Pikabea, Uxue Ansorregi, Xanta Sousa eta Beatriz Tanco.

Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiko finala barriz, zemendiaren 13an jokatu zan Bilbao Arenan eta bertan, txapeldunorde izan zan zeanuriztarra. Probea, 45 hatzkadako lau enbor zatituea izan zan eta arinenak, Nerea Arrutik, hamabi minutu eta hamasei segundotan amaitu eban egitekoa. Atzetik, Astondoak hamabost minutu eta 58 segundo behar izan ebazan eta Uxue Ansorregik, hamazazpi minutu eta 52 segundo. Astondoak azaldu dau, Arruti aurkari izanda, irabaztea gatx ikusten ebala baina "denporea bajatutea" izan zala bere idea.



umeentzat saskibalo saioa eta 14 urtetik gorakoentzat hirukoen txapelketea egongo dira kiroldegian. Izena alde aurretik emon behar da. 17:30etik 19:00etara, 60 urtetik gorakoentzat Elikadura gure osasunean izeneko tailerra egongo da jubiladuen egoitzan. Tailerak bigarren saio bat izango dau hilaren 24an. Atzenik, 18:30ean, andrazkoen galapan egiteko saioa egongo da eskolatik urtenda.

Barikuan peloteak izango dau protagonismoa, ping-pong txapelketea eta eskupeletako 3 modalidade desbardin erakusten dituan ikuskizunagaz. Ping-pong txapelketea 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek jokaturako dabe 18:00etan, Gaztelekuan. Eskupeletako modalidade desbardinak erakusten dituan ikuskizuna barriz, kiroldegian izango da 18:00etan Lemoako Eskupilota Taldearen eskutik.

Zapatuan, hilak 19, LH1 eta LH6 bitarteko umeek II. Duatloi Txikia jokaturako dabe eskolan, Guraso Elkarrekin antolatuta eta 16:00etatik 18:00etara, bizikleta

ginkanea egongo da 7 urtetik gorakoentzat, Lemoako Txirrindulari Elkarrekin antolatuta. 17:30ean, Million Dollar Baby pelikulea proiektatuko da Gaztelekuan.

Lemoatx Trail Lasterketearen VI. edizinoak zarratuko dau aurtengo Lemoako Kirol Astea.

Lemoatx Trail

Partaidetza handia eta kirol jai giroa espero da Lemoatx Trailen. Martxetako plaza guztiak bete dira eta lasterketetarako ia danak. Modalidade bakotxean 250 personak emon eikien izena. Lasterketa luzeak 24 kilometro ditu eta laburrak 16 kilometro. Mendi martxa luzeak laster-

keta luzearen ibilbide bera dauka eta besteak, 8 kilometro. Lemoatx Trail lasterketea, Bizkaiko mendi lasterketen ligana dago.

Orduetegiari jagokonean, mendi martxalariak izango dira lehenengoak abiatzen, 08:00etan; gero, 09:15ean, lasterketa luzeak urtengo dira; 10:00etan, lasterketa laburreko lasterkarien txandaa izango da eta 10:15ean, martxa laburreko partaideena.

Herrian jai giroa ez da faltauko. Izan be, mendiko materiala, kamisetak, txapelak eta sudaderak salduko salmahai bi egongo dira eta taloak eta jatekoak salduen daben furgonetak be bai.



LEHIAKETEAK

Umeentzat, Gabonetako Postalen Lehiaketea abiatu dau Arteako Udalak

Erredakzinoa

Parte hartutako lanakaz erakus-ketea egingo da Arteako Kultur Etxean, 2022ko abenduaren 22tik 2023ko urtaileko 8ra arte. 2010 eta 2017 urteen artean jaiotakoek hartu daikie parte. Parte hartu gura dabenek, abenduaren 9ra arte daukie lanak entretetako epea. Partaide bakotxak lan bi aurkeztu leikez gehienez. Gutunazal zarratu

baten aurkeztu behar dira ludo-terekin, "Gabonetako postal lehiaketa" izenburupean. Edozein teknika erabili daiteke DIN-A4 formatuan eta plegau barik. Kategoria bi egongo dira, 2010 eta 2014 urteen artean jaiotakoak eta 2013 eta 2017 urteen artean jaiotakoak. Irabazleek liburuak erosteko bonu bana jasoko dabe saritzat eta sari banaketea abenduaren 22an izango da Kultur Etxean.

KANPAINEAK

Igorreko Kultur Etxeko bazkide txartela merkeagoa izango da Gabonetako kanpainan

Erredakzinoa

Igorreko Kultur Etxeko bazkide izateko urteroko Gabonetako kanpaineta martxan dago. Abenduaren 22ra arte lagun txartela 5 euro merkeago izango da. Nolan, norbanakoek 25 euro pagau beharko dabe; familiako lagun txarteleko 20 euro kide bakotxak eta 14 urtetik beherakoentzako prezioa 15 eurokoa izango da kanpaineak dirauan bitartean. Txartela, 2023ko urtailaren 1ean hasi daiteke erabiltzen. Lagun-txartela izateak hainbat bentaja dakar: Lasarte Aretoko ikuskizunetan %25eko deskon-



tua, lau film eta Lasarte Aretoko aukeratutako beste ikuskizun bat debalde ikusteko aukerea, IKEko ikastaroetan %15eko deskontua eta etxean programazioa jasotea, hain zuzen be.

LIBURUAK

Ahoztar Zelaietak zaintza negozioaren inguruan jardungo dau Dimako liburutegian

Erredakzinoa

Zemendiaren 17an, 19:00etan, Dimako Abaroa Aretoko egongo da Ahoztar Zelaieta *Residencias SA* bere liburuak aurkezten. Bertan, Euskal Herriko zaintza negozioaren interesak eta administrazioagaz dagozan loturak azalduko dauz. Ahoztar Zelaieta Zamakona ikerketa-kazetari, kriminologo eta idazlea da. *Residencias SA* liburuan, nagusien egoitza pribadu eta kontzertaduen negozio ereduak deskribiduten da, irabazi ekonomikoan oinarritutako

eredua, %25eko errentagarritasunera be heltzean dana. Negozioa hain errentagarri izanda, Euskal Herrian esku pribaduetan dago batez be zaharren zaintza. Izan be, "oin dala 30 urte, EAEko egoitzen %9 baino ez egoan esku pribaduetan eta oin, dagozan 370 egoitzetatik, 277 dira pribaduak". Liburuak langileen lan baldintza eskas eta prekarioak be aztertuten dauz, eta honek zaintzaren kalidade ezan daukien eragina. Baita, administrazioa eta alderdi politikoakaz lotuta dagozan jaubeen praktika txarrak be.

PAILAZOAK

Antxo ta Pantxa pailazoak ikuskizun barria estrenauko dabe

Dimako Iker Urtiaga Machok eta Arrankudiagako Ainara Murgia Santinek osotuten dabe Antxo ta Pantxa, Arratian eta Arratiatik kanpo hain ezaguna dan pailazo bikotea.

Erredakzinoa

Laster, 100. emonaldia beteko dabe. Eta hilaren 20an, Portugalen *Gurekin konektatu* ikuskizun barria estrenauko dabe. Antxo ta Pantxa, 2015ean, Barakaldoko Bagatza auzunean sortutako Gora Bihotzak alkartearen ageriko arpegiak dira. Modu dibertigarrian, aldaketa soziala bultzatu gura daben sei ikuskizun ditue *Museoaren taupadak*, *Eutsi dantzari*, *Amamaren ganbaran*, *Ahaztuen distira*, *Antzarrekin dantzan* eta *Papertxoria*. Oin zazpigarrena estrenauko dabe.

Zelan sortu zan Antxo ta Pantxa pailazo taldea?
2015ean sortu zan taldea, Barakaldoko Bagatza auzoko jaietan, pailazo talde baten azken momentuko baja bat ordezkatzin eginiko emonaldian. Nerbioi ibarreko ezkeraldeen, Txirbilenea kulturgune autogestionauan hasi ziran ensaioak. Egun, Diman eta Arrankudiagan bizi gara. Gora Bihotzak alkartearen arpegi publikoa gu biok gara, baina gure atzean hainbat laguntzaile dagoz. Gehienak, gure familiakoak. Zazpi urteren ostean ilusino handiz jarraituten dogu eta laster 100 emonaldi beteko doguz. Nork

pentsau ordezkapen bat beteten urten ginaneko haretan!
Ikuskizun barri bat dakarzu, Gurekin konektatu izenekoa. Ze antzekotasun eta ze desbardintasun dauka aurreko lanakaz?
Gure antzezlanetan aldaketa soziala bultzatzen dogu, jente-arte parekide eta justu baten alde agertzen gara beti, eta umeei zuzenduta, gatazka sozialen inguruko antzezlanak egiten doguz. Aurreko lanetan, genero ikuspegia, euskerearen erabilerea, amamek eginiko lanaren isla, familia eredu barriak, animalei eginiko tratu txarrak, *bullyinga*...

eta beste hainbat gai tratetan doguz modu dibertigarri eta parte-hartzailean. Horretan daukie antzekotasuna gure lan guztiek. Magia, musikea, jantzea, jolas eta esperimintuz osotutako antzezlanak dira. Aurtengoan, teknologia barrien erabilpena, errua, edoskitzea eta beste hainbat gai landuko doguz. Musikea, Unai Silvestre "Txikitto" barakaldarragaz batera egin dogu. Beste hainbat lagunak eta umek be hartu dabe parte. Musika hau guztiau gure webgunean egongo da debalde deskargetako eta gure emonaldietan be salduko dogu *pendrive* baten. Promozinoa sare sozialetatik egingo dogu, zemendian zehar pistak joango gara emoten, kartela, sinopsia, aurkezpen eguna, bideoak... Gure munduaren begirada positibo eta dibertigarria, esaldi bat egaz isladatzen dogu beti: Gora bihotzak!
Noz izango da estreinaldia? Arratian lotu dozue ezer lan barria aurkezteko?
Estreinaldia zemendiaren 20an izango da, Portugalen Merkaduan, bostak aldera. Merkadua gune autogestionaua da eta Bizkaiko zubiaren ondoan dago. Hor-tik aurrera bira lotzean gabiz eta sare sozialetatik zabalduko dogu. Arratian noz egiteko zain gagoz, guretzat etxean egitea beti dalako berezia.



IPUINAK

Umeentzako ipuin kontaketea Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzinoa

Zemendiaren 30ean, Amaia Elizagoienek eta Irati Celestinok, *Basoko sekretuak* 2 eta 3 urteko umeentzako ipuin kontaketea egindo dabe Kotxepin Kultur Etxean. 18:30ean hasi eta ordubete inguru egongo dira kontaketak egiten. Lan honek, hartu-emonak, laguntasuna, norberaren buruan eta inguruan konfiantza,

aniztasuna, hezkidetzeta, naturrearen zaintza, eguneroko erru-

tina eta euskal mitologia, landuten dauz. Urte sasoi bakotxean basoan gordeten diran sekretuak deskubriduten lagunduko deutsez umeei, animalien barri emon eta euren istorioetan murgilduta; hau da, basoa sentidu, bizi eta maitatzeko aukerea izango dabe.



BERTSOLARITZEA

Bertsolari Gazteen XXIX. BBK Sariketatik kanpo geratu da Arratia



Markina-Xemeingo saioko irudia.

Erredakzinoa

Sariketako lehenengo saioa jokatu zan zemendiaren 7an Markina-Xemeinen Lea-Artibai eta Arratia taldeen artean. Lea-Artibai izan zan puntu gehien batu eban taldea eta finalaurrekoetara sailkatu da; Arratia barriz, kanpoan geratu da.

Markina-Xemeinen, 18 urte artekoetan, Arratiatik, Maindi Estiballesek, Joane Bilbaok eta Aner Zuluagak kantau ebezan

bertsoak; 19 eta 26 urte bitartekoetan, Araitz Katarain, Irune Basagoiti eta Igor Galarza izan ziran bertsolariak. Lea-Artibaiko bertsolariak, Amaiur Galdos, Ariane Sololuze eta Ziara Larrinaga izan ziran 18 urte artekoan eta Garazi Nabarro, Ander Anakabe eta Bittor Altube nagusien kategorian.

Saioko aurkezlea Etxahun Lekue izan zan eta epaimahaia Miriam Juaristik, Beñat Romerok eta Jone Antsoategik osotu eben.

KIÑU GAZTETXEA

Hilaren 19an ospatuko da Kiñu Gaztetxeak antolatutako IX. Rockupa

Kiñu Gaztetxeak urtero ospatuten dau eraikina okupau zaneko urteurrena, egun osorako egitarau eta andrak protagonista diran kontzertuakaz. Bazkarirako txartelak, Igorreko Herrikoan dagoz salgai. Hilaren 26an ostera ZETAK taldeak kontzertua emongo dau gaztetxean.



Erredakzinoa

Hilaren 19an beteko dira bederatzi urte, 2013an gaur Kiñu Gaztetxea dan eraikina oku-

pau zanetik. Ordutik, Igorreko gaztetxea dozenaka kontzertu eta jairen lekuko izan da; baina urtero lez, okupazioaren urteurrenean herrira aterako dau

egitaraua Kiñuko asanbladeak. Eguna goizeko 11:00etan hasiko da, Kiñu aurrekaldean. Batetik, auzoko Fasioren iturria barriztauko da auzolanean, garbitu eta margoztuta. Bestetik, umeentzako tailerrak egongo dira, Zaztaparrak-en eskutik. Gero, bozgorailua hartuta Olabarriko tabernetatik poteoa egingo dabe, bazkalduten hasi aurretik. Bazkaltzeko, baba jana antolatu dabe Kiñuko kideek eta txartelak, Igorreko Axular Herriko Tabernan egongo dira salgai zortzi euroan, hilaren 17ra arte. Bazkari beganoa be egongo da aukeran eta gero, Maratuk girotutako bazkalostea egingo da. Egund biribilari amaierera emonateko, kontzertuak egongo dira gazte girodun tabernetan. Lehenengo Las Sexpeares hirukote barakaldarrak eskainiko dau punk-rock alternatibo kontzertua Kukuman, 21:30ean. Gero, Herrikora mobiduko da giroa, bertan Dj Feministrak ipiniko dabe musikea 23:00etatik aurrera.

ZETAKen kontzertua

Hilaren 26an, Pello Reparazen ZETAK taldea izango da Kiñun, Leitza, Elorrio eta Donapaleutik be pasauko dan Gaztetxe Bira kontzertu zikloaren barruan. Ateak 21:30ean zabalduko dira eta ZETAKen ostean, Dj Easyrek ipiniko dau musikea.

Kontzerturako sarrerak hilaren 16an, hasiko dira saltzeaz zortzi euroan, 17:00etatik aurrera Igorreko Axular Herriko Tabernan, Areatzak Hagina tabernan eta Lemoako Atxeta tabernan. BEGITUK be, lau sarrera zozketauko dauz sare sozialetan, beraz, adi ibili!

DUNBA

Erabakiak hartzean

Dimako Ugarana ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Aurten be, Dimako eskolako ikasle eta irakasleok udagoienerako urtekera bat egitea pentsau genduan gaztaina eguna atxakiatzat hartuta.

Asanbladan (4 urtetik hasi eta 6. mailako ikasleak arte) alkartu ginan egun hori danon artean antolatzeke.

Asanbladan herriko zein lekutara joan, zertara joan, leku horretako ezaugarriak eta bete beharko leukezan baldintzak aztertu genduzan.

Egia esan, gure herrian auzo eta leku interesgarri asko dagozaneez idea desbardin asko bota

genduzan.

Nora joan? Indusi, Bargondi, potxingoa, San Migel Txiki, Olazabal, Artaun, Urrekoatxa, Oba, Bikarregi... eta beste hainbat lekutara joan ahal ginala atera zan.

Botazinoa egin aurretik leku horrek bete beharko leukezan baldintzak aztertu ziran. Ze baldintza euki beharko litzateke kontuan? Espazioa egokia izatea, hur egotea, gaztainak egotea, komunak izatea, eta edozein lekutara joanda be ingurunea zaindu behar dala eta alkar errespetau behar dogula ebatzi zan.

Guzti hau kontuan izanda, hainbat leku bertan behera geratu ziran eta botoa emon ostean Indusira joatea ebatzi genduan



Dimako ikasleak asanbladan.

baina Artaunek, Obak eta Bargondiak be hainbat boto izan ebezan. Hurrengo baterako izan

beharko dau!

Gelara bueltan talde bakotzak Indusira heltzerakoan zer egin

ahal genduan pentsau genduan eta idea asko eta interesgarriak atera ziran: bidean gaztainak batu, mitologiako ipuinak entzun, Jentilzubi ikusi, eskalau, bolotara jolastu, musikea entzun eta jantzan egin, soka saltorako ikasi doguzan abestiak saltau, ezkutaketa eta harrapekatara jolastu...

Urtekera eguna heldu zan, oso ondo pasau genduan danok batera jolasten eta disfrutetan.

Laster hurrengo antolatzen hasiko gara!



AGENDEA

ZEMENDIAK 16
ARANTZAZU

Abenduaren 2ra arte, bialdu daitekez argazkiak Arantzazuko Argazki Lehiaketan parte hartzeako *idazkaritza*. *arantzazu@bizkaia.org* helbidera.

ARRATIA

Abenduaren 9ra arte, 18eta 35 urte bitartekoek, urri lehenengoaren 2020tik urri lehenengoaren 2022ra artean Arratian enpresak sortu dituenek dirulaguntzak eskatu daikiez *www.arratia.eus* webgunean.

Abenduaren 12ra arte, Meteo Arratia Lehiaketan parte hartzeako argazkiak bialduteko epea zabalik. Argazkiak Messenger bidez bialdu behar dira Meteo Arratia kontura.

ARTEA

Abenduaren 9ra arte, Gabonetako Postal Lehiaketea. Lanak Kultur Etxeko ludotekan entregau behar dira. Gero abenduaren 22tik urtailaren 8ra arte erakusketea egingo da aurkeztutako lanakaz.

18:00etatik 19:00etara, gimnasioan begiralea. Astelehen eta eguaztenetan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, zemendiaren 25ean Bilboko Arriaga antzokian *Todas las hijas* antzezlan ikusteko izena emoteko epea zabalik; Gabonetako Postalen Lehiaketarako lanak aurkezteko epea eta Udalak eratutako ikastaroetan plaza libreak beteteko aukerea liburutegian. Euskaraldiko txapak eta banderolak eskuragarri agortu arte liburutegian.

16:30etik 19:30era arte, hilaren 25era arte, urtailaren 4an, Donostiako Gabonetako Azokara 18 urtetik gorakoentzako urtekeran izena emoteko epea liburutegian.

Hilaren 30era arte, birziklatzeko materialakaz egindako Gabonetako Zuhaitzen Lehiaketea.

17:30ean, Bardintasun Planaren aurkezpena liburutegian.

DIMA

19:00etan, 2023ko jaiak antolatuteko taldea sortzeako batzarra udaletxean.

IGORRE

Kultur Etxeko bazkide kanpaina zabalik abenduaren 22ra arte.

Abenduaren 3an jubilauek Kortezubin egingo daben bazkarirako izen-emotea zabalik hilaren 24ra arte. Jubilauen txokoa.

LEMOA

10:00etatik 10:45era, Hit intensidade handiko entrenamentua; 11:00etatik 11:50era, Spinning; 17:00etan, Padel Txapelketea kiroldegian. Izena emon *kiroldegia@lemoa.net* helbidean eta 94 631 4297telefonoan. 17:30ean, *Osasuna: gorputza eta burua* helduentzako tailerra Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, udagoien osoan zehar, mendi ibilbide autogidatua: Ubide-Eneabe-Bastelarra-Arralde. Ubide inguruko mendiak ezetuteko aukerea. Informazino gehiago 94 673 92 79 telefonoan edo *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean.

ZEANURI

Hilaren 22ra arte, izena emon daiteke 25ean izango dan Asterriako jaietako

auzo afarirako 636 378 870 telefonoan.

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea *harrera@zeanuri.eus* helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegir sortutako espazioan ipini.

Hilaren 20ra arte, 2023ko aurrekontuak botau eta ekarpenak egiteko epea, galdetegia bete eta Udal webgunean edo udaletxeko postontzian itxita.

18:30ean, EH Bilduk aurrekontuen gainean herritarren eretxia jasoteko batzarra plazan "2023ko aurrekontu parte-hartzaileak" izenburupean.

ZEMENDIAK 17
DIMA

19:00etan, Ahoztar Zelaietaren berbaldia *Residencias SA. El negocio de los cuidados en Euskal Herria* Abaroa Aretoan.

IGORRE

18:00etan, jubilauentzat berbaldia: *Testamentua*. Kultur Etxean. Gero kopaua.

18:30ean, Adrian Zelaiaren *Mundua bidegurutzean* berbaldia Kultur Etxean.

LEMOA

16:00etan, 9 eta 11 urte bitartekoentzako saskibalo saioa eta 14 urtetik gorakoentzako hirukoentxapelketea. Izena emon *kiroldegia@lemoa.net* helbidean eta 94 631 42 97 telefonoan. 17:30ean, 60 urtetik gorakoentzako *Elikadura gure osasunean* tailerra jubiladuen egoitzan; 18:30ean, galapan egiteko saioa andrentzat eskolatik urtenda.

ZEMENDIAK 18
ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Abenduaren 2ra arte, Euskaraldia.

AREATZA

17:00etatik aurrera Euskaraldiko ahobizi



Txalo Produkzioak-en
Lehendakari gaia komedia
Lasarte Aretoan egongo da

Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Iker Galartzak eta Zuhaitz Gurrutxagak antzeztuko daben Ramon Madaularen *Lehendakari gaia* komedia hau Igorreko Lasarte Aretoan ikusi ahal izango da zemendiaren 26an, 20:00etan. Bazkideek doban ikusi ahal izango dabe antzezlan.

Sinopsia

Lehendakari hautatu barria inbestidura ekitaldirako berbaldia dabil prestatzen eta azken orduan arazo larri bat sortu jako. Izan be, ekitaldia eta berbaldia emon beharrak arpegian tik arraro, barregarri eta aguantaezina eragin deutso hautetsiari. Kendu ezina da eta ekitaldi nagusia izorratzeko arriskua dago.

Arazoa bideratzeko psikiatra bat agertuko da eta ondorioz, bien artean barriketaldi dibertigarri eta nahasgarri bat sortuko da. Zer dauka bakotxak ostenduteko? Zeintzuk dira bakotxaren benetako motibazioak? Atzera begiratuta, bizitzan zerk ekarri ditu dagozan lekura? Eta batez be, bata zein bestea, euren eginkizunetan bokazinodunak dira?

eta belarriprest txapak banatu; 18:00etan, argazki herrikoia, ostein mokadua eta 19:00etan, kalejirea Arratiako Eingo trikitilari eskolako ikasleakaz.

ARTEA

18:00etan, zemendiaren 25eko manifestazino osteko ekitaldirako *Bortxatzailea nor da? Zu!* kantuaren entsegua eskolako kiroldegian.

19:00etan, Euskaraldiko leloa eskegi udaletxeko balkoian. Ostein, trikiti... sax... kalejirea herritik.

BEDIA

18:00etan, *Barrokora bidaia* musika barrokoari buruzko antzerki lirikoa Adhara Martinez eta Teresa Merinoren eskutik liburutegian.

DIMA

19:00etan, Euskaraldiaren hasikerako ekitaldia frontoi txikian. Ostein argazkia eta Eingo taldeagaz tabernaz taberna.

IGORRE

17:00etan, Euskaraldiko jantzearen koreografia Kultur Etxean; 19:00etatik 21:00etara, batukadea Kultur Etxetik hasita.

LEMOA

18:00etan, 12 eta 18 urte bitartekoentzako ping-pong txapelketea Gaztelekuan; 18:00etan, Lemoako Eskupilota Taldeak antolatuta, eskupelota ikuskizuna, "3 modalidade desbardin" kiroldegian.

19:45ean, Euskaraldiaren hasikera ekitaldia frontoian. Abenduaren 2ra arte, merkataritza kanpaina Euskaraldiak dirauan bitartean.

ZEANURI

18:00etan, Euskaraldiari hasikerea emoteko jaia. Testu irakurketea, talde argazkia, bertsolariak, euskal jantzak, txistulariak eta txorizo eta urdai jana.

ZEMENDIAK 19
ARANTZAZU

07:20an, plazan. Arginatx Mendi Elkartearen urtekerea Toloño inguruetara eta bodegara; 09:00etan, mendi buelte; 14:00etan, dastaketea bodegan; 15:00etan, bazkaria eta 19:00etan, buelte Arantzazura.

AREATZA

Pagadi bat garbituteko urtekerea. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

20:00etan, Edu Basterraren kontzertua The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

11:00etan, umeentzako tailerrak Zaztaparrakaz eta Fasioren iturria

barritau; 13:00etan, Kiñun hasita bafle poteoa Olabarritik; 15:00etan, baba jana Kiñun (aukera beganoa be badago. Sarreak hilaren 17ra arte salgai Axular Herriko Tabernan); gero, bazkaloste girotua Maratugaz; 21:30ean, Las Sexpeares taldea Kukuman eta 23:00etan, Dj Feministrak Axularren. IX. Rockupa.

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatzaren lehen emonaldia 40. urteurreneko kontzertua. Luis Iruarizaga Abesbatza eta Areatzako Banda Lasarte Aretoan.

LEMOA

12:00etan, Guraso alkarteak antolatuta II. Duetloi Txikia eskolan; 16:00etan, Lemoako Txirrindulari Elkartek antolatuta, bizikleta ginkanea eskolan eta 17:30ean, *Million Dollar Baby* pelikulea Gaztelekuan.

ZEMENDIAK 20
AREATZA

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua, abesbatza, Nerea Zuloaga eta Musika Eskolako ikasleakaz. Eleizan.

DIMA

19:00etan, *Me too* antzezlan eskolan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Los buscamundos*; 19:30ean, *El viaje de Nisha* Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00etan, Lemoatx Trail mendi lasterketea.

ZEMENDIAK 21
ARTEA

18:00etatik 19:00etara, gimnasioan begiralea. Astelehen eta eguaztenetan.

LEMOA

Hilaren 27ra arte, Egunean behin lehiaketea. Lemoako taldean parte hartzean dabenen arteko lehiaketea izango da. Saria emongo jakie aste horretako lehen bederatzi sailkatuei, eta zozketa bidez beste parte hartzaile bateri. Saria: Kotxepin Kultur etxeko 2023ko harpidetzea eta Nerea Ibarzabal idazlearen *Bar Gloria* liburua.

ZEMENDIAK 22
ARTEA

18:00etan, zemendiaren 25eko manifestazino osteko ekitaldirako *Bortxatzailea nor da? Zu!* kantuaren entsegua eskolako kiroldegian.

19:00etan, antzerkia *Birritan bortxatua* Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 23
ARTEA

18:00etatik 18:30era, Musika Eskolako Zezili Deunaren jaialdia. Kalejirea, kontzertua plazan eta txokolatea Kultur Etxean.

LEMOA

17:00etan, Paula Kasares soziolinguistearen *No sabemos euskera ¿Cómo ayudaremos a nuestras/os hijas/os?* berbaldia, euskeraz ez dakien gurasoentzat, eskolan.

ZEANURI

18:00etan, *Gure hots* dokumentala eta ostein Arrate Fernandez zuzendariagaz barriketaldia Arkotxan.

ZEMENDIAK 24
LEMOA

17:30ean, 60 urtetik gorakoentzako *Elikadura gure osasunean* tailerreko bigarren saioa jubilauen egoitzan.

19:00etan, Lorena Cabnalen *Feminismo comunitario* berbaldia Karabie Gaztetxean.

ZEMENDIAK 25
BEDIA

16:30ean, plazan batu trenean Bilbora joateko Arriaga Antzokian *Todas las hijas* antzezlan ikusteko; 18:00etan, txokolatea txurroakaz Bilboko Areatzan.

DIMA

18:00etan, Andraizeak antolatuta, Bea Egizabalen *Magma mia* bakarrikzakea Abaroan; 19:15ean, konzentrazino errotondan. Ondoren, danok Igorrera.

IGORRE

20:00etan, "Antolakuntza feministaz beldurra irauli" lemapean manifestazino Kultur Etxetik hasita. Ostein, ekitaldia.

ZEANURI

Asterriako jaiak. 18:00etan, jaien hasikerea bolanderakaz; 19:00etan, Igel Txapelketea; 21:30ean, auzo afaria. Ostein mahai-jokoak eta kantuak.

ZEMENDIAK 26
ARTEA

11:00etan, berbaldi-eztabaida, hizlariak: Monserrat Galceran, Maribel Casas eta Sebastian Cobarrubias; 14:30ean, bazkaria (erreserbak 94 602 88 55); 16:30ean, kafea eta Sofia Catala eta Rosa Perezen *Colis Supect* dokumentala; ostein solasaldi irekia Luciana Alfaro, Victor Pozas eta Giacomo Donadiogaz. Herriko Bentan.

BEDIA

Eleizalde Bediako Jubilatu eta Pentsionisten bazkaria; 12:30ean, mezea alkarteko hildakoen memorian; 14:00etan, bazkaria Batzokian.

IGORRE

21:30ean, ateak zabaldu ZETAK taldearen kontzerturako. Ostein, Dj Easyer. Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

18:30ean, antzerkia, *Piztu! EmakumeON energia* Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Asterriako jaiak. 17:00etan, Ogaragoitiko iturriaren 70. urtearen ospakizuna: herriko txistulariakaz joan-etorria eta lora eta bertso eskaintzea; 18:30ean, biko desafioa: Luis Polanco azkoran eta Mikel Etxebarria ardi moztan, 19:00etan, Harriti Andra Proba Taldearen hordagoa Zeanuriko mutilei harria tiratuten; 20:30ean, odoloste jana; 21:00etan, gau jantzaldia Jainaga eta Narbaizagaz; bitartean zozketea. Ostein, musikea egunak argitu arte.

ZEMENDIAK 27
IGORRE

17:00etan, *Zure platerean hasten da mundua* dokumentala. Ostein zuzendariaren berbaldia. Zinuema.

LEMOA

18:00etan, *Trapu zikinak* antzezlan Kotxepin Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 28
AREATZA

19:00etan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen *Luze edo motz* udaletxean.

ZEMENDIAK 30
LEMOA

18:30ean, 2 eta 3 urteko umeentzako Amaia Elizagoien eta Irati Celestinoren *Basoko sekretuak* ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, mezea Asterriako San Andres ermitan eta ostein barauskarria; 20:00etan, jaien amaierak bolanderakaz.

KOMIKIA

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ

Ama labradore errazakoa. Interesdunek jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonora.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebtxean.

Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASE PARTIKULARRAK IGORREN

3-4 DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazio gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.

LOGELAKO ALTZARIAK SALGAI

Logelako altzariak saltzean dodaz. Interesdunek deitu telefono honetara: 689 565 364.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Lehendakari gaia antzezlanerako.

Nagore Bernaola (Dima)
Gabriel Erdoiza (Lemoa)

Inma Valiente (Zeanuri)
Olatz Landajo (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



